# Klima Aldaketa

**“Klima-aldaketa” giza jarduerari, zuzenean edo zeharka, egozten zaion klimaren aldaketa bat da, munduko atmosferaren osaera aldatzen duena eta klimaren aldakortasun naturalari batzen zaiona, denbora-epe konparagarrietan behatuta, Klima Aldaketari Buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmenaren arabera.**

Giza jarduerari egotz dakiokeen aldaketa nagusia munduko tenperatura globala handitu izana da, berotegi efektuko gasak isurtzearen ondorioz. BEG-isurpenak handitu izanaren erantzule nagusiak dira erregai fosilak energia sortzeko lehengaitzat gero eta gehiago erabiltzea, XVIII. mendeko industria-iraultzatik hasita, eta lurraren erabileran izandako aldaketak, elikagaien ekoizpen intentsiboko ereduei erantzuteko.

2017an, munduko berotzea 1ºC-ra iritsi zen, maila aurre-industrialekin alderatuta. Hortik eratortzen dira, besteak beste, bioaniztasuna galtzea, glaziarrak urtzea, muturreko klima-fenomenoak, ozeanoak azidotzea, habitatak aldatzea eta itsas-maila igotzea.

(https://jasangarritasuna.elika.eus/cambio-climatico/estrategiak-eta-planak/)

Estrategiak eta planak (https://jasangarritasuna.elika.eus/cambio-climatico/estrategiak-eta-planak/)

Parisko akordioan, zein 197 herrialdek sinatu baitzuten, adostu zen munduko batez besteko tenperaturaren handitzeari 2ºC-tik behera eustea, maila aurre-industrialen aldean, eta ahaleginak egiten jarraitzea handitze hori 1,5ºC-ra mugatzeko, ohartzen baitziren horrek nabarmen murriztuko zituela klima-aldaketaren arriskuak eta ondorioak. Egungo berotzearen erritmoa kontuan hartuta, 1,5ºC-ra iritsiko ginateke 2040an.

## Klima aldaketari buruzko berriak ()

(https://jasangarritasuna.elika.eus/plastikoaren-konponbide-jasangarri-eta-berritzaileak/)

### Plastikoaren krisiari aurre egiteko konponbide jasangarri eta berritzaileak

28 martxoa, 2019

(https://jasangarritasuna.elika.eus/klima-aldaketari-buruzko-komunikazio-gida/)
Klima-aldaketari buruzko Komunikazio Gida

14 otsaila, 2019

(https://jasangarritasuna.elika.eus/klima-aldaketaren-krisiari-nola-aurreratu/)
Klima-aldaketaren krisiari nola aurreratu

16 urtarrila, 2019